

udalberri

13. zenbakia

Ataungo udal aldizkaria

2006ko ekaina



Herribidea
Joxemiel Barandiaran Museoa
Haur Eskola
Ergoienako plaza berritza
Tokiko Agenda 21

04
05
06
07
11

San Gregorioko plaza, berritua

... eta abar

Sarrera

Aurreko legegintzaldietatik datorren ohiturari jarraituaz, guk ere UDALBERRI honen bidez, azken hiru urteetan Ataunen egindako lanen laburpen bat eskaini nahi dizuegu. Beharbada gai batzuk ezagunak edota zaharrak egingo zaizkizue, baina guretzat garrantzitsuak direlako, hemen agertzea pentsatu dugu.

Eguneroko udaletxeko lanean murgildurik gaudenontzat herritarrek informazio guztia eskuetan edukitzea garrantzi handikoa da. Gainera gehiago esango nuke: gure nahia ez da bakarrik zuei informazioa ematea; horrez gain benetan gustatuko litzaiguke gure lanetaz zuek daukazuen iritzia ere guri jakinaraztea. Horregatik edozein zalantza duzuela udaletxeko ateak beti irekita edukiko dituzue. Azken batean denon helburua berdina da: datozen urteei begira elkarlanean Ataun, bizitzeko leku atsegina egitea.

UDALBERRI honetan gai asko aurkituko dituzu, batzuk sakonean landuta eta beste batzuk hitz gutxitan. Momentu honetan ez zait erraza egiten gai batzuk besteen gainetik azpimarratzea, baina hurrengo lerroetan saiaturiko naiz.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazioako sailetik jaso dugun dirulaguntzari esker, pixkanaka-pixkanaka lau plaza berritzeko asmoa daukagu: San Gregoriokoa amaituta dagoen bezala, aurki Ergoienakoarekin hasteko asmoa daukagu; ondoren San Martingoaren txanda etorriko da eta azkenik Aiakoa berrituko da.

Joxemiel Barandiaran Museoa ere aurrera doa. Larruntza errota etxea berritzeko lanak aurki bukatuko dira. Ondoren Euskal mitologia jasoko duen kobaren eraikuntza hasiko dira egiten.

Teknologia arloan ere pausoak ematen ari gara: lehendabizi Wifi izan zen eta ondoren Wimax.

Bestalde gure herriarentzat hain garrantzitsuak diren hainbat proiektu ere momentu honetan lantzen ari gara: Lazkaotik San Gregoriorainoko gasifikazioa, San Gregorioko etxebizitzak...

Besteak beste aipaturiko proiektuak epe motzera gauzatuta ikusiko ditugun esperantzaz, agurtzen naiz.

Bittor Oroz Izagirre
Ataungo Alkatea

aurkibidea

Sakonean

Herribidea	04
Joxemiel Barandiaran Museoa	05
Haur Eskola	06
Ergoienako plaza berritzea	07
Interneteko banda zabala: Wifi eta Wimax	08
Atsedeen Toki	09
San Gregorioko plaza	10
Tokiko Agenda 21	11
Basoan egindako lanak	12
Baserri bideen konponketa	14
Etxebizitzak	15

bi hitzetan	16
--------------------------	-----------



Herribidea Astigarraga auzoan.



Herribidea Urezandi ikusten dela.

Herribidea

Pixkanaka-pixkanaka Ataungo herria zeharkatzen duen errepidearen eta Agauntza ibaiaren ondoan oinezko bidea berreskuratzen ari da udala. Duela zortzi urte ekin zitzaion San Martingo Ubarritik San Gregorioko Kaietanoneko zubiraino dagoen hiru kilometroko ibilbide lasaiari. Ibilbide horrek izan zuen erabilera handia kontuan izanda, udalak garrantzia eman dio gure herriko auzo desberdinak oinezko bideekin lotzeari.

Horregatik San Gregoriotik Ergoienako auzo gunera eta San Martingo auzo gunetik Lazkaoa bitarteko proiektuak udala hasi zen lantzen. Orain dela 3 urtetik hona bi ibilbide hauek ere errealitate dira.

Umarkitik Ergoienara doan ibilbideak zenbait paraje polit eta herriaren beste ikuspuntu berri batez gozatzeko aukera ematen du. Horrez gain, Beasain, Lazkao eta Ataun herrien arteko elkar komunikaziorako beste urrats bat gehiago ere bada ibilbidea.

Pozgarria da herribidean egunero hainbeste jende ikustea paseatzen. Horregatik gaur egunean martxan dagoen ibilbidea txukun zain-

tzeak badu garrantzirik: eserlekuak, iturriak... Eginkizun hau udalarena ere izanagatik, ibiltariena ere bada, azken batean denok saiatu behar dugu gure ondarearen zainetzeaz.

Umarkin jarritako panelarekin eta baita bidean zeharreko seinaleekin ibilbidean zehar udalak erabilera zuzen hori bultzatu nahi du. Ondoren agertuko ditugun puntuak ibiltariekin betetzeko izango dira:

► Oinezko ibilbidea da Umarkitik hasi eta Ergoienaraino doan bidea.

► Motoek debekatuta edukiko dute ibil-

bide osoan ibiltzea.

► Bizikletak bakar-bakarrik Umarkitik Astigarragako atsedenleku-raino ibiltzea edukiko dute. Aipatutako zatian beti ere txirrindulariak abiadura txikian eta oinezkoari lehentasuna emanaz ibili beharko dira.

► Zakurrak beti lotuta ibiliko dira eta bidean egiten dituzten gorotzak euren jabeek bildu beharko dituzte.

Azken egun hauetan Ataungo udalari interesgarria iruditu zaio San Martin auzotik Ergoiena auzora doan herribidean zenbait hobetze lan egitea. Horregatik azken egunetan udala eginkizun horretan lanean ari da.

Herribidean zehar lokatza egiten zen uneetan, zagorra edo todo uno bota da. San Martingo Astigarragako parkean ere lokatza egiten zelako, lehendabizi hodi bat sartu da alde batetik bestera eta gero zagorra bota da. San Gregorio auzoko Perune zaharra baserriaren inguruko lur sailetan egoera ez zen batere segurua. Alde batetik lehendik lubizia zegoelako, baserri pareko harriak eta lurak herribidera erortzen zeuden. Beste aldetik lubiziaren inguruko paretak edozein momentutan herribidera erortzeko arriskua zeukaten. Horregatik lubizia zegoen lekuan eta baita lubizia gertatzeko arrisku handiko lekuetan harri-lubetak edo eskoilerak egin dira. Guztira 50 metrotan burutu da hobekuntza. Bestalde herribidean zehar zeuden unerik txarrenak konpondu dira: bati bat urak eragindakoak zirelako, herribideko zenbait lekutan bidea ez zegoen egoera onean.

Bestalde, hurrengo helburua Ergoiena auzotik Kaxetaraino oinezko ibilbidea luzatzea da. Momentu honetan 2 kilometro inguruko bidea nondik nora joan daitekeen aztertzen ari gara. Aurki ibilbidearen proiektua zehaztu beharko da eta ondoren, Ergoienatik Kaxeta doan ibilbidea gauzatu.

● ● ●

**Ibilbidea txukun
zaintzea denon
eginkizuna da**

● ● ●

**Hurrengo helburua,
Ergoienatik Kaxetara
ibilbidea luzatzea da**



Joxemiel Barandiaran Museoaren sarrera gunea.



Larruntza errota berrituta.

Joxemiel Barandiaran Museoa

Ataungo ondarea berreskuratu eta zaindu nahian, azkeneko urte hauetan udalak Larruntza errota eta bere inguruan ekimen ugari burutu ditu. Inguruak garbitu eta txukuntzeko asmoz, 1998 eta 1999 urteetan auzolandegiak antolatu ziren eta 2000. urtean berriz, Errotaxoren zati bat berritu zen.

2001.enean Aranzadi Zientzi Elkartek burutu zuen ikerketa arkeologikoan, besteak beste Errota, Errotatxo eta inguruaren lanabes, tresna eta baliozko gauzen inbentarioa gauzatu zen. Horrekin batera Aranzadiren txostenean agertzen denez gero, Errotaren lehen dokumentua 1408. urtekoa da. Pentsa daitekeen bezala, 6 mendeetan zehar Larruntzako Errotak eta Errotatxok makina aldaketa jasan ditu. Aranzadi Zientzia Elkartearen iritziz, Larruntzako multzo hidraulikoa aberastasun eta interes handikoa da. Benetan gure arbasoen bizimodu gertutik ezagutu nahi duenak aukera ederra dauka ikerketa honetan.

Herri ondarea eraberritzeko lan honetan, 2002an Larruntza guzieren erosketa burutu zuen udalak.

2003. urtean hasi zen Zaharra Berriko Antonio Almeida Errotatxo-ko zerrategi eta kanal guzieren berritze lanak egiten. Teilatua konpondu ondoren, bertako hormak sendotu dira. Zerrategiaren egurrezko taulak denak aldatu eta bertan zeuden makina eta lan tresnak ere berritu dituzte. Gaur egun lanak bukatuta daudenean, Errotatxok beste gauza bat ematen du. Ondoren Errotara doan ubidea sasi eta zikinez hartuta zegoelako, dena garbitu zen.

Hasieratik garbi zegoena zera zen: Museoa, Joxemiel Barandiaran zein izan zen zabaltzeko lekua izan behar zuela. Euskal Herriko kultur ondarearen gordeleku izan behar duen Joxemiel Barandiaran Museoaren proiektua gure herriaren etorkizunerako oso garrantzitsua izan behar duela uste dugu. Horregatik iaz Joxemiel Barandiaran Museoa nolakoa izan behar zen aztertzeko herriko talde bat udaletxe-

an bilduz lanean aritu izan zen. Hainbat bilera egin ondoren, azkeneko batzordeak eman dio oniritzia proiektuari. Hurrengo pausoa herri-tarrei proiektuaren nondik norakoaren aurkezpena egitea izan da. Proiektuaren bizkarrezurra herribide bera da. Bi eraikinetan dago oinarrituta Museoaren proiektua: Larruntza errota berritzean eta kobazulo berri bat egitean. Bideragarritasun aldetik, museoa epeka egingo da. Horregatik Larruntza errota proiektuan paper garrantzitsua jokatzeko zuela ikusita, konpontzeko lanei ekin zitzaion. Larruntza etxeko bi solairutan.

Joxemiel Barandiaranen bizitza eta lanaren tokia izendatzea izan zen. Horretarako teknologia berriek izugarritzko garrantzia izango dute. Eraikuntza honen berrikuntzan jadanik ari dira eta denbora gutxi barru dena bukatuta egotea espero da. Lan hauek burutzeko Kutxa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza ezinbestekoa izan da.

Ondoren Larruntza errota gertu dauden lurretan kobazuloa eraikitzeko asmoa dago. Kobazuloa egiten denean, gainera lurzorua orain dagoen bezala geratuko da eta obrak burutzerakoan, kontu handia izango da inguru guztia txukun uzteaz. Bertan euskal mitologia gertutik ikusteko eta gozatzeko aukera egongo da. Inongo zalantzarik gabe bi eraikuntza hauek eraikitzeko direnean, Joxemiel Barandiaran Museoa errealitate izango da.

• • •

**Bi eraikinetan
oinarritzen da museoa:
Larruntza errota eta
kobazuloa**

• • •

**Jadanik Larruntza
errotako lanak
amaitzeaz daude**

• • •

**Datozen urteetarako
kultur ekintzarik
garrantzitsuen
bilakatuko da museoa**



Gabrielenea: haur eskolaren kokaleku berria.

Haur Eskola

Jakingo duzuen bezala Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxeko beheko solairuan kokatuta dagoen Haur Eskola martxan dago. Hasieran bi zaintzaileen ardurapean 9 haurrekin hasi bazen ere, momentu honetan bertan 12 haur dabilta eta aurrera begira kopuru hori handitzen joango dela pentsatzen dugu.

Ataun bezalako nekazal herri txiki bat bizirik mantendu nahi bada, haurtzaindegiak papel garrantzitsua jokatzeko du. Lanean dabil-tzan senar-emazteentzat haur eskola be-har-beharrezko zerbitzua bilakatzen da.

● ● ●
**Lanean dabil-tzan
senar-emazteentzako
beharrezko zerbitzua da**

● ● ●
**Gabrielenea, kokapen
egokia da
Haur Eskolarentzat**

Gaur egunean Haur Eskolak nahi duenarentzat goizeko 08:30etatik arratsaldeko 16:00etara zerbitzua eskaintzen du. Jakingo duzuen bezala, haur eskolak 0-2 urteko haurrak hartzen ditu eta ume batek egunean 8 ordu baino gehiago ezin ditu bertan pasatu. Momentuz, haur ba-koitzaren janaria, guraso bakoitzak haur eskolara eraman behar du, baina aurrera begira gurasoek horrela ibili beharrik ez dutela izango pentsatzen dugu.



Haur eskola barrutik.

Azken urteetan Ataunen jaio diren haur kopurua oso altua izan de-la jakinik, jadanik Joxemiel Barandiaraneko Haur Eskola txikiegia gertatzen ari zaigu. Horregatik Gabrieleneko Fundazioarekin udalak akordio bat sinatu du 15 urterako. Akordio horren arabera, Gabriele-nean etxearen ustiapena udalaren esku gelditzen da datozen 15 urte-etan. Ondorioz beheko solairuan Haur Eskolako bi gela aterako dira. Bertan sukaldea ere egoteak haur eskolari begira abantaila handia da. Gainera Gabrielenearen kokapena ere ona da, eskola oso gertu izatea denontzat mesedegarri gertatzen baita.

Hemendik aurrera bertako beste solairuetako gelak ere herriko beharretarako erabiliko dira.



Ergoienako plaza.

Ergoienako plaza berritzea

San Gregorioko plaza berritu ondoren, aurki Ergoienako plaza berritzeari ekin nahi diogu. San Gregorioko plazarekin egin zen bezala, oraingoan ere auzotarrekin bilera bat baino gehiago egin dira. Egin-dako aurreproiektua oinarritzat harturik, auzotarrek euren proposamenak egiteko aukera izan dute. Azkenean onartu den proiektuak ezaugarri desberdinak izango ditu. Alde batetik errepidean izango du aldaketarik handiena. Auzoaren bi sarreretan errepidea altxatu egingo da eta gero asfaltoa ez den beste pabimentu bat emango zaio. Horrela Ergoienako auzo gunetik igarotzen diren ibilgailuek abiadura moteldu beharko dute.

Zubia ere egokitu egingo da, errepide nagusitik duen sarrera zabalduz. Gaur egungo autobus geltokia dagoen lekuan, berriz, aparka-

lekuak egingo dira. Zubiaren beste aldean ere izango dira berrikuntzak: Iturbe aldera doan pistan pabimentua jarriko baita.

Plazari berari dagokionez, errepidearen eta espaloiairen maila berean jarriko dute, orain arteko zuloa kenduz. Miradorea ere erabat aldatuko da. Lehen eskailera batzuk jaitsita zegoena, orain plazaren maila berean jarriko da.

Haurrentzako jolas parkea ere lekuz aldatzeko asmoa dago. Orain Arbeldiko baratzaren ondoan geldituko litzateke. Ondoan lurpeko zabor ontziak eta autobus geltoki berria ere jarriko lirateke.

...

Ergoienako auzotik pasatzerakoan, ibilgailuek abiadura moteldu egin beharko dute



Kanposantu gaineko antena.

Interneteko banda zabala: Wifi eta Wimax

Gaur egun herri garapenean garrantzitsua da teknologia berriak herritarren esku egotea. Hori horrela, legealdi hasieratik, saiakera berezi bat egin da banda zabala herriratzeko. Lehen saiakera telefonikaren ADSL-a herrian garatzea izan zen, baina Beasaingo zentraletik zegoen distantzia zela eta, ezinezkoa zela garapen hori jakinarazi ziguten. Beraz orain bi urte Wifi sare bat herrian garatzeko erabakia hartu zen. Wifi sarea kablek gabeko herriko barne sare bat da. Herri barruko komunikazioa oso azkarra da eta sare honi punturen batean banda zabala erantsiz gero, sarean dauden ordenagailu guztiek

dute aukera banda zabal hori izan ahal izateko. Horregatik, Lazkao eta Ataunen artean errepetidore bat jarrita, banda zabaleko konexioa ekarri zen Lazkaotik uhin bidez, gero herrian zehar banatu dena. Momentu honetan koberturarik gabeko puntu batzuk kenduta, guk nahi bai-

no gehiago tamalez, herriaren zati handi batean dago hedatua Wifi sarea eta gutxi gorabehera momentu honetan 70 erabiltzaile daude.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren programa batean sartzeko zortea ere izan dugu. Herri txikietan banda zabala hedatzeko ezarri den Wimax programan hain zuzen. Wifiren antzera kablek gabeko teknologia honek banda zabala eta telefonia garatzen ditu eta Euskaltelek kudeatuz, zerbitzu hauek eskaintzen ditu herrian zehar. Momentu honetan gure lehentasuna kobertura herri guztira zabaltzea da, Ataungo orografia zaila medio, herri osora seinalea ez da iristen eta. Etorbizun batean telebista ere Wimax bidez emateko aukera dutela ere esan digute Euskalteleko arduradunek.

Udalaren etorkizuneko erronka berriz, zuntz optikoa edo fibra optikoa herrira ekartzea da: Lazkaotik Atauna datorren gas naturalaren kanalizazioa aprobetxatuz hain zuzen. Euskaltelekin harremanetan gaude zuntz optiko ere Lazkaotik Atauna ekartzeko. Ea aurki berri onak emateko aukera dugun!

● ● ●

**Teknologiako
berrikuntzetan ezin
gara atzera gelditu**



Atsedeen Toki.

Atsedeen Toki

Betidanik udalaren nahia izan da, Atsedeen Toki irekita egotea. Horrelako lokal batek gure bezalako herri txiki batean, funtzio asko bete-tzen dituela garbi dago: jubilatuentzat elkartzeko lokal bat edukitze-tik taberna bezala erabiltzeraino hain zuzen. Baina gauzak ez dira hain errazak izaten. Azken urteetan ere arazoak pilatzen joan dira eta Atsedeen Tokik denboraldi bat itxita, beste bat irekita eta azken bola-da honetan taberna bezala itxita baina nahi duenarentzat lokala era-bilgarri dago. Atsedeen Toki irekita eduki asmoz, udalak ahalegin guz-tiak egin ditu eta horretarako era desberdinak probatzen saiatu da. Baina inguruko herrietan gertatzen den bezala, gurean ere ustiaketa aurrera eramango zuen norbait aurkitzea oso zaila egin da.

Momentu honetan behintzat taberna bezala funtzionatzeko auke-rrarik ikusten ez denez gero, irailaren bukaeratik aurrera nahi duen ju-bilaturentzat eta herritarrentzat Atsedeen Tokiko atea zabalik daude. Goizetik iluntzera bertako atea irekita daude nahi duenarentzat.

Egunero euren tertuliak egiteko edota jokoan aritzeko Atsedeen To-kiko lokala erabiltzen duten pertsonak bat baino gehiago dira. Bertako egonal-dia atseginagoa egiteko, kafe makina bat ere jarri da.

Baina aurrera begira gaur egungo egoerarekin ezin gintezke lasai egon. Ho-rrelako lokal bati beste funtzio batzuk ere ematea beharrezkoa ikusten da. Badau-de Gipuzkoan Jubilatuen Elkarteak dina-mizatzeaz arduratzen diren etxeak eta momentu honetan udala hauetako ba-tzuekin harremanetan dago. Azken bate-an denon artean Atsedeen Tokiri soluzio on bat aurkitzen saiatu behar dugu.

● ● ●

**Une honetan lokala
edozein herritarrek
erabil dezake**

● ● ●

**Aurrerantzean
jubilatuen egoitzak
funtzio desberdinak
bete beharko ditu**



San Gregorioko Plaza berrituta.

San Gregorioko plaza

Eusko Jaurlaritzako Ogasun Saileko Izartu programatik jaso dugun dirulaguntzari esker, pixkanaka-pixkanaka herriko plazak berritzeko asmoa dago.

Lehendabiziko plaza berritu dena San Gregoriokoa izan da. Aurre-proiektua egin zenean, euren iritzia eduki asmoz, auzotarrekin bilera egin zen. Proposamenak jaso eta proiektua burutu arte pausoak ematen joan gara. Obra 466.000 euro kostatu da eta kantitate horren % 75a Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailak ordaindu du eta falta den % 25a udalak jarri du. Plazari harrizko zorua jarri zaio eta obra aprobetxatuz, argiteria berritu da. Bestalde gainaldea txukunago gelditzeko, lurpeko zabor-ontziak jarri dira.

Hemendik aurrera San Gregorioko plazak hiru erabilera nagusi izango ditu:

- Zati bat eguneroko erabilerarako gordeko da. Bertan ibilgailuak aparkatzeko lekua ere izango da.

- Ekitaldi eta egun berezietarako erabiliko den zatia.
- Haurren jolastokia izango dena.

Bolatokia, San Gregorioko etxebizitzaren urbanizazioarekin batera garatuko da. Rokodromoaren proiektua berriz, eginda dago jadanik eta herritarren iritzia jasotzea baino ez da falta.

Baita esan plazako lanekin batera, Olaldera arte doan uraren hodia eta saneamendu sarea jartzeko aprobetxatu dela.

• • •

%75a

**Eusko Jaurlaritzaren
dirulaguntzaz egin da**

• • •

**Hiru erabilpen
desberdinetarako
egokitu da**





Ataun: herri bizia.

• • •

Tokiko Agenda 21

Ingurumen gaiek duten
garrantziaz denok
jabetu behar dugu

• • •

Jadanik herriko
diagnostikoa eta
ekintza-planaren
dokumentuak egin dira

Gaur egungo bizimoduak, lurraren okupazioak, kontsumoak eta beste hainbat gaiek ingurumenaren arazoak arduradun egiten gaitu. Egoera honen aurrean ingurumenari behar zaion garrantzia eman beharrean gaude. Baliabide naturalak ezin ditugu behar baino gehiago kontsumitu.

Horregatik denon eginkizuna da arazo hauei aurre egiteko bitartekoak jartzea. Horrek bultzatuta, gure aldetik ere pausoak ematen hasi ginen.

Iaz bilera asko egin ziren udaletxean Tokiko Agenda 21eko diagnostikoa egin asmoz. Horretarako 18ren bat herritarrez osatutako lan talde bat antolatu zen eta Prospektikar eta Goiekiko teknikarien laguntza jaso genuen. Bileretan ateratako iritziekin teknikariek diagnostiko eta ekintza-planaren dokumentuak burutu dituzte. Aipatutako foruetan parte hartu duten herritarrei dokumentuen berri eman zaie eta ondoren, udalbatzak eman beharko dio oniritzia.

Gai honekin jarraituz esan, iazko urte bukaeran egindako udalbatzak, iraunkortasun alorrean Aalborg-eko karta eta Euskal Herriko jasangarritasunerako konpromisoko txostena onartu zituen.



Hondakinak.



Txintxalekun-intsinisa.

Basoan egindako lanak

Azken hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritza eta Ataungo udalaren artean Ataungo lur publikoetan burutu dituzten lanak laburbilduko ditugu:

Aitzarte

- Gesalbe barreneko larizioan bakanketa egin da, bataz beste 45 hektareako azaleran.
- Intxusti goenetik hasi eta Aldasbarreneraino dagoen zuhaitzi eskaseneko alertze eta abeto sailak bakandu dira, 25en bat hektareako azaleran.
- Aldasbarrena eta Aralegiko zelaia bitarteko alertze sail eskasenei bakanketa egin zaie, 15 hektarea inguruko azaleran.
- Aldasbarrenetik Aralegi eta Aitzio aldera doan bide nagusia eta Ertzillegi aldera doana ere, konpondu egin dira. Azken hau basoa ateratzean berriro zati batzuetan apurtu bada ere. Gutxi gora-behera 8-9 kilometrotan egin dira lan hauek.
- Aitziotik Erremedio alderako bidepean eta bide gainean dauden sailetan zakarrak moztu eta poda lanak burutu dira. Bataz beste 8 hektareako azaleran lana burutu da.

► Aldasbarrenetik Ertzillegi alderako bidearen erdi parean bezala eta batik bat bide gainean, atzera gelditurik zeuden abeto sailtxo batzuei azpi adarrak moztu eta bakanketa egin zaie. lauren bat hektareako azaleran egin da lan hau.

► Han eta hemen, makinaz bide ertzak txukundu dira. Gutxi gora-behera 6.500 metrotan egin da.

► Amundaraingo etxaburuan, Lasarteko lepo inguruan eta baita ere Txutiturrieta iturri garaia aldean baso bakanketak egin dira eta lehen biderik egin gabe geldituak zirenez gero, aurretik bide zati batzuk ere egin zaizkie. Guztira 800 metro bide berri eta 6ren bat hektareatan bakanketa egin dira.

► Bedamaburuko gainetik Erremedio alderako isurian dagoen bizkar horretan baso bakanketa aurreratuta dago. Nagusiki alertzean egin bada ere, larizio eta abetoan ere egin da. Gutxi gora-behera 45 hektareako azaleran burutuko da lan hau.

Agauntza

► Muski, Sorotxoeta buru eta Amuñain aldean udako garbiketak burutu dira. Gutxi gora-behera 20 bat hektareatan egin dira.



Puntaundiko larizioa.

► Sorotxoeta burun bakanketa bukatu da. Bataz beste 4,50 hektarea ditu.

► Bakanketak burutu ahal izateko, bideak egin dira eta ebaki ondoren belar haziarekin erein da. Dantzalekutik Atxurbi aldera bitarte egin direnak, 1.750ren bat metro izango dira.

► Igartzagarate gainean, Ergoienan, Ollangan eta Amuñain Buruko zati batean zakarrak moztu eta poda lanak burutu dira. 16 hektarea inguru egin da guztira.

► Lizarragabetik Atxurbira bitartean dagoen pinudi gazteari zakarrak moztu eta poda lanak egin zaizkio.

► Atauntxoko lepotik Lizarragaberainoko pistari konpondu lege bat eman zaio. Gutxi gorabehera 850 m. izan dira konpondu direnak.

► Han eta hemen, bide ertzak makina eta esku lanez txukundu dira. Bataz beste 10.000 metrotan lana egin da.

► Abetagoenetik Txintxalekuraino dagoen pinudi gaztean zakarrak jo eta poda lanak egin dira. 14ren bat hektareako azaleran egin da.

► Txintxalekutik Amuñain garai aldera dagoen pinudi gazteari ere zakarrak moztu eta poda lanak egin zaizkio. 16 hektarea inguru izan dira guztira.

Marumendi

► Marumendiko zelaiko pinudiaren bakanketa burutu da. Gutxi gorabehera 26 hektareatako azaleran egin da.

► Pinupean etorrita zegoen zepako pagoari aukeratze eta bakanke-ta egin zaio. Guztira 16ren bat hektareatan egin da eta ondoren herri-tarrek su egur lote bezala aprobetxatze-ko aukera izan dute.

► Bakanketa egin ondoren, pinuari al-tuko poda egin zaio: 5,50-6 metrotarai-no altxatuz lehen zuena. Bataz beste 26 hektareatan egin da lan hau.

► Arrikolatza inguruan bi lur zati landa-tu dira: bata, artadian zegoenez arteare-kin eta bestea lehen galdua zuen abeto landara berberarekin. Gutxi gorabehera 2,30 hektareatan egin dira lan hauek.

► Aldaketa havei udarako garbiketak eta neguan ihartutako landareak berriro ere jartze lanak egin zaizkie.

● ● ●

**Gure basoak zaintzea
denon eginkizuna da**

● ● ●

**Gipuzkoako
Foru Aldundiarekin
batera lan asko burutu
dira azken urteetan**



Sorotxoetako bidea asfaltatuta.

Baserri bideen konponketa

● ● ●

**Herriko zehar
desberdinetan baserri
bideak konpondu dira**

● ● ●

**Baserri bideak konpon-
tzeak garrantzi handia
dauka baserriak bizirik
mantendu nahi badira**

Goimen, udala eta partikularren artean dirua jarritz, zenbait baserri bide asfaltatu dira. Alde batetik Kurtuiztik Kalakase-neraino bidea asfaltatu da eta handik aurrera tarte okerrenak zeudenak ere konpondu dira. Urrutsumendi aldean berriz, 100 metrotan ubidea egin da eta zenbait tartetan asfaltoa ere bota da. Baita Mota-sorotik hasita eta Aritzandietara baserriraino bidea kilometro batean asfaltatu da.

Bestalde, Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritzaren eta udalaren artean, Aralegiko bidegurutzetik Aitzio baserriraino eta Aitzio eta Bedamako bidegurutzetik

Bedamako Zelairaino ubidea egin da. Guztira 2.565 metro izan dira konpondu direnak. Bidea gogorragoa izan dadin, hormigoia bota aurretik, tarte guztia indartzeko sarea jarri da. Egindako bidean ura bere tokitik joateko, zenbait lekutan burdinazko ursareak ezarri dira. Ibilbideko hiru lekutan bidea estuegia zegoelako, bidea zabaltzeko harri-lubeta egin beharra izan da.

Baita esan beharrean gaude, berehalako batean lehen aipaturiko Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritzak, Aralegiko bidegurutzetik hasi eta izen bera duen baserrirainoko bide zatia asfaltatu egingo duela. Horretan hasi aurretik eta dagoeneko, bideak zituen pitzatuen kentze lanak egin dituzte, puskatua altxatu eta berriro ere tarte horietan ormigoia burdin sarearekin bota dutelarik. Baita aprobetxatu nahi da lehendik ubideak daudenak garbitzeko eta ez dauden lekuetan hormigoia botatzeko.



San Gregorio etxebizitzetako lurzorua.

Etxebizitzak

San Gregorio frontoiaren alboan eta Artillazpiko etxearen atzealdean 16 etxebizitza tasatuak egiteko pausoak aurrera doaz. Auzoko gazte-en etxebizitza eskariei erantzunez eta prezioak ahalik eta egokienak izan daitezen saiaturaz, Otsobide S.A. enpresaren ardurapean eraikiko dira aipatutako etxebizitzak. Jadanik etxe horietan bizitzeko interesatuak zeudenen artean zozketa egin da eta horren arabera momentu honetan txandan-txandan eskatzaile bakoitzak zer pisu nahi duen aukeratu du.

Eraikitze lanak aurtengo udan hasi nahi dira eta aurreikuspenen arabera bi urte barru bukatu. Etxebizitza horiek 81 eta 118 metro karratu arteko azalera izango dute. Gehiago zehazteko, 81 metro karratu dituzten 4 etxebizitza izango dira, 84 metro karratuko 8 eta 118 metro karratu dituzten beste 4. Prezioari dagokionez, hiru salneurri ezberdin izango dituzte. Merkeenek 138.232 euro balioko dute; beste batzuek 147.247 euro; garestienek, berriz, 198.333 eurotan salduko dira.

Aia auzoan ere, ahalik eta azkarren etxebizitzak egin nahi dira. Begone etxea berritu eta bertan 6 etxebizitza eraikitze asmoa dago.



Begone etxea.

● ● ●

Auzo desberdinetan
etxebizitza eskaerei
erantzun behar zaie

● ● ●

Gazteentzako
etxebizitzak prezio
egokian jartzea da
udalaren helburua

aurkibidea

bi hitzetan

San Isidro Eguna	17
Herrialde behartsuenentzat dirulaguntzak	17
Argazki Ralia eta Pintura Lehiaketa	18
Kalostragaineako lokal berria	18
Otsobide S.A.	18
Lazkaoko Eguneke Zentroa eta Gerontologia	19
Arantzazumendi eta Agautz mendietako larreak	19
Zakarrontzi berriak	19
Udaleko ekonomia	19
Sahara herriari elkartasuna	20
Etxez etxeko laguntzak	20
Nitxoen berrantolaketa	20
Telebistako antenak	20
Aiako gasa	20
Kultur eta kirol ekintzak	21
Ataun Aztergai Beka	21
Ataun eta Sararen arteko anaikidetza	22
Ibilgailuen aparkatze desegokiak	22
Herri Antzokia	22
Presoen senitartekoei dirulaguntzak	22
Herriko biztanle kopuruaren bilakaera	23
Izartu programaren dirulaguntza	23
Fatxadak pintatzeko dirulaguntzak	23
Herriko artxiboa	23



Iaz Aian ospatutako San Isidro eguna.

San Isidro Eguna

Aurten maiatzaren 15ean San Isidro eguna San Martinen ospatu da. Bitor Jatetxean egin zen bazkariarekin eman zitzaion amaiera egunari. Urtero egin ohi den bezala, aurten ere barazki eta ziza lehiaketak antolatu dira. Azkenean hauek izan dira sarituak:



Lehiaketako postu bat.

Barazki lehiaketa:

- 1- Pili Eskisabel
- 2- Juan Arrondo
- 3- Rosario Urdangaarín
- 4- Rosario Agirre

Ziza lehiaketa:

- 1- Felipe Munduate
- 2- Zeferino Auzmendi
- 3- Bitoriano Lizarraga
- 4- Andres Arrondo

Herrialde behartsuenentzat dirulaguntzak

Badira urte batzuk jadanik udalaren aurrekontuko % 0,7a herrialde behartsuenei laguntzeko eskaintzen dela. Aurten ere beste horrenbeste egin da. Adibidez iazko dirulaguntza era honetara banatu zen:

- ▶ Medicus Mundi 5.129,38 euroko dirulaguntza Ekuadorreko proiektua aurrera eramateko.
- ▶ Gipuzkoako "Oscar Romero" Solidaritzari 1.235,31 euro El Salvadorreko proiektuarentzat.
- ▶ Kasongo Lundari 1.235,31 euro Kongoko proiektuarentzat.



Iazko Argazki Raliko sari banaketa.



Iazko Pintura Lehiaketako sari banaketa.

Argazki Ralia eta Pintura Lehiaketa

Ekainaren 4ean ospatu zen III. Argazkigintzako Ralia eta II. Pintura Lehiaketa. Eguraldi ona zutela, Argazki Ralian 25 partaide izan ziren

eta Pintura Lehiaketan berriz, 13. Bi lehiaketan sari banaketa Herri Antzokian uztailaren 1ean izango da.

Kalostragaineako lokal berria

Udalak Kalostragaineako lokala eraberritu du eta ondorioz hemendik aurrera herriko elkarteek bertan bilerak, ikastaroak... egiteko aukera izango dute. Horrez gain aste barruan haurrak egoteko egonleku bezala ere erabiltzen da lokala.



Kalostragaineako lokala.

Otsobide S.A.

Udalaren babesean sortu berri da Otsobide izeneko elkarte publikoa. Ataun bezalako landa herri batek duen arazo nagusienetako bat, etxebizitzarena da. Normalean, etxebizitza merkatuak erregulatzen du eraiki behar direnen kopurua eta prezioa. Baina hori askotan ez da nahikoa izaten eta etxebizitza sustapenean, Administrazioak, sor litezkeen desorekak zuzentzeko partehartze zuzena izan behar du.

Horretarako sortu da Otsobide S.A. izeneko sozietate publikoa. Bere lehendabiziko ekimena San Gregorio plaza inguruko 16 etxebizitza tasatuak martxan jartzea izan da.



Lazkaoko eguneke zentroaren bi irudi.



Lazkaoko Eguneke Zentroa eta Gerontologia

Irailaren 23an ireki zen Lazkao, Olaberria eta Ataungo herrien arteko Eguneke Zentroa Orobionen dago kokatuta. Lehenengo urtean 12 pertsonentzako dago lekua bertan eta Zentroaren ordutegia astelehenetik ostiralera goizeko 09:30etatik arratsaldeko 17:30etara da. Egu-

neko Zentroaren helburu nagusia adineko pertsonei eta euren familiakoei arreta egokia ematea da.

Bestalde jadanik, Lazkaon lehen aipatutako hiru herriko herritarrentzat Gerontologia Zentroaren lehen urratsak ematen hasiak daude.

Arantzazumendi eta Agautz mendietako larreak

Herriko zenbait ganaduzalek horrela eskatuta, lehendabizi udalak Arantzazumendiko larreen ustiapenerako Ordenantza onartu zuen eta geroxeago Agautz mendian gauza bera egin zen. Horrela bada udalak larreak ustiatzeko urteko planean larreratzeko tokiak, denbora eta kantitatea ere zehazten du.

Zakarrontzi berriak

Herriko zenbait lekutan pedal baten bidez altxatzen diren zakarrontzi berriak jarri dira. Horrez gain arropa zaharrak eta pilak botatzeko edukiontzia ere ipini dituzte.

Udaleko ekonomia

2005. urtean amaitu zuen udalak zituen kredituen azken ordainketa. Beraz momentu honetan udalak ez du zorrik eta egoera ekonomiko ezin hobe du datozen hilabeteetan egin behar diren obra garrantzitsuei aurre egiteko. Hala nola: Ergoiena eta San Martingo plazen urbanizazioa, Ergoiena eta Aiako gasifikazioa, Joxemiel Barandiaran Museoa...

Agerikoa den bezala herriaren diru sarrerak oso mugatuak dira, bertan dauden zerbitzu eta industri kopurua txikia da eta. Egoera honi aurre egiteko kanpoko dirulaguntzak lortu eta kudeatu behar izan dira.

Sahara herriari elkartasuna

Urtarrilaren amaieran Saharako herriari lagundu asmoz, janari bilketan kanpaina antolatu zuen udalak. Hiru auzoetan kanpainak oso emaitza ona izan zuen herritarren partetik. Aurrera begira ere udalak sahararrei laguntzeko ekintza gehiago antolatzeke asmoa dauka. Bestalde, apirilaren 27tik maiatzaren 1era alkateak Euskal Herriko beste agintari batzuekin batera Saharara egin du bisita. Gure elkartasuna adieraziz gain, bertako herria den Ainbeida Dairarekin senidetasun akordioa sinatu da.



Ainbeida Daira herriarekin senidetzea.

Etxez etxeko laguntzak

Beste urteetan bezala, aurten ere udala etxez etxeko laguntza zerbitzua ematen jarraitzen du. Horrekin batera esan beharrean gaude, Gipuzkoako Foru Aldundi eta udalaren artean ezinduen etxeko laguntza zerbitzuaren hitzarmena sinatu dela. Honen ondorioz, etxeko laguntza zerbitzua udalaren esku gelditzen da eta adineko ezinduen arreta eta zaintza, berriz, Foru Aldundiaren esku.

Nitxoen berrantolaketa

Azken hilabeteetan hiru auzoetako hilerrietan nitxoak berrerrabiltzeko prestaketa lanetan ari da udala. Atera diren gorpuak 10 urte baino gehiago zeramaten hilerrian.



Aiako nitxoak.

Telebistako antenak

Herriko zenbait lekutan telebista ondo ikusteko arazoak daudela jakinik, udala leku desberdinetan antena berriak jartzeko asmotan dabil. Gure nahia ahal den azkarren arazo hau konpontzea da. Besteak beste Goierri Telebista ikusteko aukera izateko ahaleaginean gabiltza.

Aiako gasa

Aiako plaza inguruko etxeetara gas propanoa sartzeko aukera dago jadanik. Horretarako hodiak sartu dira eta Filipenea, Aietxeberri eta Ar-billea baserrikoek ere aukera izango dute etxeetan gasa edukitzeko. Begone inguruko lurretan jarriko da gasaren depositoa.



Otso festako sari banaketa.



Piraguismo ikastaroa.

Kultur eta kirol ekintzak

Urtean zehar kultur eta kirol ekintza ugari antolatzen dira. Alde bate-tik urtean zehar antolatzen diren ikastaro desberdinak dauzkagu: aurt-en sukaldaritza eta mekanografia ikastaroak martxan daude jadanik.

Azken urteetan egin den bezala, udan kirol ikastaroak eta kirol txapelketak ere antolatu dira. Abenduan berriz, Joxemiel Barandiaran kultur astea antolatuko da.

Ataun Aztergai Beka

Azken urteetan egin ohi duen bezala, aurten ere udalak Ataun Aztergai Bekaren IX. argitalpenaren deialdia egin du. Beka honen bidez, herria bere osotasunean aztergaitzat harturik, arlo desberdinetan lan-tzen eta aztertzen diren ikerlanak bultzatu nahi dira. Lanak aurkezte-ko epea maiatzaren 31n bukatu zen. Hiru proiektu aurkeztu dira eta azkenean epaimahaiak hiru lanetatik Izaskun Egiguren Imazek aur-keztutako "Don Juan Arin Dorronsoro: ataundar bat bere herriaren iragana arakatzeko" lana aukeratu du.



"Jentilen etorrera" liburuaren azala

Ataun eta Sararen arteko anaikidetza

Ataun eta Sararen arteko uztarketa nahiak ez dira gaur goizekoak. Joxemiel Barandiaranen figura bi herrien arteko loturak sendotzeko zubi eta sustrai ezinbestekoa gertatu da. Horregatik azken urteetan bi herrien arteko anaitasunaren borondatea bizirik egonda.

Azkenekoa joan zen urteko irailaren 18an Aian ospatu zen bi herriren arteko senidetasun eguna. Saratik etorri ziren 60en bat lagunekin batera egun eder bat pasatu genuen Aian. Goizetik hasita eta iluntze bitartean hainbat ekintza antolatu ziren: pilota partidak, bi herrietako musika eta dantza eskolen ekitaldiak, bertsolari eta abeslariaren saioak...

Aurten berriro saratarrek ataundarren bisita izango dute.



Bi herrietako ordezkarien batzarra.

Ibilgailuen aparkatze desegokiak

Herrian zehar desegoki aparkatutako ibilgailuek sortzen dituzten arazoaren aurrean, udala kezkatu agertzen da. Bere garaian bando baten bidez herritar bakoitzak kontzientzia hartzeak duen garrantzia azpimarratzen zuen. Askotan ibilgailua behar bezala aparkatu eta metro batzuk ez egitearren, ez gara konturatzen ze oztopo eta arrisku sor ditzakegun. Bandoaren ondoren, batzuek behar bezala aparkatzeko ohitura hartu bazuten ere, beste batzuek berdin-berdin jarraitzen dute.

Herri Antzokia

Iaz zinearen ustiaketa udalak hiru urterako Urbietta-Egaña S.L. etxeari ematea erabaki zuen. Akordio horren arabera aipatutako etxeak denboraldian zehar 28 filma larrirentzat eta 22 haurrentzat eskaini behar ditu. Horrez gain, udalak urtean zehar 15 emanaldi edo ospakizunetarako eskubidea izango du. Zine denboraldian astero ostegunetik igandera egunero filmak eskainiko dira eta igande arratsaldean gaztetxoentzat saioa ere izango da.



Herri Antzokia.

Presoen senitartekoei dirulaguntzak

Azken urteetan egin den bezala, aurten ere udalak onartutako aurrekontuetan atal bat utzi da presoen senitartekoei diruz laguntzeko. Horrela Euskal Herritik kanpora preso dauden sendikoek egin behar dituzten 15 joan-etorrietako bidaiak laguntzen dira. Adibidez iaz, presoen sendikoek 3.235,80 euroko dirulaguntza jaso zuten.

Herriko biztanle kopuruaren bilakaera

Urte dezentetan Ataungo biztanle kopurua pixkanaka jaisten joan da. Azken urteetan berriz, kopurua igotzen ari da. Ondorengo taulak baliagarriak zaizkigu azken urteetan gure herriak eraman duen bilakaera ikusteko:

URTEA	BIZTANLEAK	JAIOZAK	HERIOTZAK	ATAUNA ETORRIAK	ATAUNDIK JOANAK	DIFERENTZIA
2000	1.544	11	16	22	29	- 12
2001	1.535	15	15	23	32	- 9
2002	1.513	7	24	39	44	- 22
2003	1.514	10	13	37	33	+ 1
2004	1.531	10	13	37	33	+ 1
2005	1.575	26	22	60	20	+ 44

Izartu programaren dirulaguntza

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuak Izartu programaren barruan Ataungo udalari dirulaguntza ematea erabaki zuen. Programa honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan gainbehera etorritako hirialdeei dirulaguntza ematen zaie. Emandako erabakia-
ren arabera, gure herriak 1.438.263 euroko dirulaguntza jasoko du (239.306.827 pezeta hain zuzen). Dirutza honekin San Gregorio, Ergoie-
na, Aia eta San Martingo plazak berrituko dira.

Fatxadak pintatzeko dirulaguntzak

Iaztik martxan daude baserri eta etxeko fatxadak pintatzeko dirulaguntzak. Neurri honen bidez, udalak herriko etxeak txukuntzen laguntzen joateko asmoa du. Gehienez etxebizitza bakoitzeko 1.000 euroko laguntza jaso daiteke eta interesatuak eskabide orria martxoaren 31a bai-
no lehen bete behar du. 2.005. urtean udalak zortzi etxebizitzari eman zion dirulaguntza. Aurten berriz, bosti.

Herriko artxiboa

San Martingo elizan zegoen artxibo historikoa zela eta, iaz San Martingo Parrokiak eta udalak hitzarmena sinatu zuten. Akordio horren ara-
bera, artxibo historikoari dagokion dokumentazioa informatizatzeko eta digitalizatzeko lanak martxan jartzen ziren. Momentu honetan doku-
mentazio guztiarekin Donostian lan horretan ari dira. Dena bukatzen denean, artxiboa berriro herrira etorriko da eta nahi duenak artxiboa kon-
sultatzeko aukera izango du.

udalberri



Ataungo udal aldizkaria